

MEMORIA

20  
18

JAIALDIAK  
OLATU TALKA



donostia  
kultura

# OLATU TUTALK A!!!

#HiriaEgin  
#HacerCiudad

MUSIKA  
ARTE  
MERKATUAK  
TALLERES  
ZIENTZIA  
TEATRO  
DANTZA  
EXHIBICIONES...

maiatza / mayo  
**25-26-27**

2015ean Donostia Kultura Olatu Talkaren zuzendaritzaz eta produkzioaz arduratu zenetik, hots, Kultura Hiriburutzaren ondareko programa batez, jaialdi hori **saihes-  
tu ezinezko hitzordua** bilakatu da, Donostiako oinarritzko kultur sareari ikusgarritasuna eta lekua ematen di-  
ona.

2018an, Olatu Talkaren 9. edizioan, **gizarte-aldarrikapenak** jaialdiaren azal eta kontrazal izan ziren, artea, dantza, zientzia, ingurumena eta, batez ere, pertsonen arteko eta elkarbizitzako harremanak gaitzat dituzten historiak kontatzen baitziren.

Inaugurazioa musikaz, dantzaz eta performancez osatu zen, Agurtzane Intxaurreaga eszena-zuzendariak sortu eta zuzendua, eta **hiriko gizarte-aniztasunaren** aldeko mezua bideratu zen. Amaiera-ekitaldian, ber-  
riz, **genero-indarkeriaren kontrako** mezua bideratu zuten bi artelaneak.

Gizarte-aldarrikapenen jaialdi honetan, 31.000 lagunek baino gehiagok gozatu zuten programaren %95az (hasieran 156 jarduera ziren izatekoak), eguraldi txarrak galarazi baitzuen oso-osorik garatzea. Hala eta guztiz ere, bikain-bikaina izan zen jaialdiaren giroa. Hainbestetaino non, parte hartzekotan izena ematea derrigorrezkoa zuten 21 jardueretan, erabat bete baitziren aretoak (1.200 lagun hartu zituzten).

Programaren barruan, Basoka, Zorionak Dylan!, Merkatuaren Eguna (Antiguan) eta Añorgako Harrobiaren Plazako hitzorduek berebiziko arrakasta izan zuten. Jarduera batzuetan ikus-entzule ugari izateak eta beste batzuetan giro aparta, **hirian era askotako jarduerak izatearen garrantzia gogorarazi zigun, eta auzoei parte hartzeko bideak emateko premia.**

Beste jarduera batzuk ere bereziki dinamikoak gertatu ziren, hala nola “Mun-




© Bostok Photo

Olana Liss, Kontzertour

duko Jolasen Topaketa” (Ongi Etorri Eskolara-rena, familientzat) eta Donostia Sketch (Elkar-ena, sei urtetik gorako marrazkilarientzat), oso parte hartze handia, beroa eta aktiboa izan baitzuten.

Dinamika horiez gainera, edizio honetan ere izan ziren jendea gehiago erakarri zutenak, hala nola Kontxa Gaumarket (86 postu) eta Kontzertour (42 emanaldi), harrera ezin hobea egin baitzieten ikus-entzuleek.



© Bostok Photo

Elkarbizi jaia, Intxaurrenongo auzoa



© Bostok Photo

Irekiera ekitaldia